

**EXOZENTRIKOEN AZTARNAK
EUSKAL HIZTEGIAN**

LUIS MARI MUJICA

Gehiegikeriarik esateko beldurrik gabe, baieza dezakegu euskara dela semantika exozentriko aberatsenetakoa duen hizkuntza. Ondorengo orritan psiko-sozial aldetik lerradura *exozentrikoa* azaltzen duen hitz aunitz ikusiko dugu (1).

Fenomeno hau, batez ere, euskal atributiboetan, oso berezia da, nahiz-eta gaur diglosiatatik formula ugari itzaltzeko zorian egon. Anatomici substratua duen (*aho, esku, bihotz, buru, mihi, etab*) atributo exozentriko ugari dugu, balorapen psikologikoen eraginez.

Guk lerradura hoiak logikoki sailkatuko ditugu, batez ere, *kolore, zoologia, botanika, objektu-tresneria* eta *tipologiari* atxikitako kasutan.


Metonimiak, eta zeharkako semantikak, euskararen gaztelanian, frantzesean, eta, behar bada ingelesean baino, desarroilo bortitzagoa du. Joera exozentriko honen arrazoia, behar bada, euskaldunaren izaera ironiko, bihurri eta okerrean datza. Euskaldunak mintzatzekoan albo-ko kera sugestiboak maite izaten ditu, hitzen usuarioei bigarren asmoa emanaz, eta satira ere jarraituz. Bestalde, euskara abstrazio mailan baino, expresakera arruntean gehiago erabilia izan da. Bere balioztapenak, horregatik, maiz expresakera alboko eta zeharkakotan (indirecto) datoz. Edozein objektu ala elementuak balentzia exozentrikoa har dezake euskaldunaren ahoan, *kaiku* (Cuenco), *mailu* (martillo), *gaztanbera* (requesón), ontzi (cubo) hitz arruntetan gertatzen den gisara.



Euskalduna errealitatearen miatzaile fina da, eta errealitate hori «zeharkako konnotapenez» beterik azaltzen da bere irudimen sinbolistaren aurrean.


(1) Artikulu hau «Eusko Ikaskuntzaren» *Mintzaira* eta Literatur sailan (1981-eko urtarrilaren 31.n) aurkeztua izan zen, eta gerora «Hitz Konposatu eta eratorrien morfo-fonetika liburuan (Edic. Vascas, 1982) argitaratua eraskin bezala.



Honela, mila hitz arruntak euskaraz «zeharkako balentziak» irabazten du, inguru-munduari esanahi berriak erantsiaz. Dudarik gabe, bide hortatik gure hizkuntzak hitz berri asko ekonomizatzen du, hitz bat bera semantika aunitzez hornitzen delako. Honako elementu hauek exozentrikoak dira kasu batzutan: *lukainka* (longaniza), *artaburu* (panoja), *gaztanbera* (requesón), *babalore* (flor de haba), *mailu* (martillo), etab. Hitz hoiak, konkretuki, exozentrizitate hau jasotzen dute itzulita: *imbécil*, *ingenuo*, *pelma*. Adierazitako hitzak, nolabait, pasibitatea, desadimena, *kolpea* adierazten dute.

Exozentrisismoaren fenomenoaren ez da, noski, euskararen pribatiboa; beraz, gaztelaniak, adibidez, badu antzeko balentziarik hitz konkretu batzutan. Hala nola: *catre*, *tarugo*, *melón*, *zoquete*, *cotorra*, *merluza*, etab. balioztapen exozentrikoaz ere erabili ohi dira, denok dakigun bezala (*catre* = idiota, *melón* = imbécil, *tarugo* = tonto, *cotorra* (hegazi bat) = habladora). Lerradura semantiko berdina «nos soltó un rollo» esaldian, jardunaldi aspergarrizkoa adierazteko. Beraz, *rollo* eta *asperduraren* artean halako lotura psikologiko bat dago, bukgabetasunagatik. Baita, *zoquete* hitzak balorapen antzekoa du, «egurrezko pusketa» batek bezala zozoak (el zoquete) ez dulako ezer ulertzen...



 EREMU ENDOZENTRIKOA
 EREMU EXOZENTRIKOA



 SEMANTIKA LITERALA
 SEMANTIKA EXOZENTRIKOA

Esandako guztia gure hizkuntzan oso desarroilatua dago. Batzutan, esanahi *exozentrikoa* endozentriko edo berezko semantikarik gabe eman daiteke, *ahobero* (locuaz) hitzean bezala, ez baita adierazi nahi hemen «de boca caliente» den zerbait, baizik eta bestea; alabaina, gehienetan, esanahi exozentrikoak aurrez endozentrikoa darama, normala den bezala. Literala ia beti lehenik baita. Adibidez: *muturluze* (hocicudolendozentrikoa, descaradolexozentrikoa), *betilun* (de ojos oscuros/endozentrikoa, triste/exozentrikoa). Gaztelaniazko *castaña*, *merluza*, *mona* etabarrek balentzia exozentrikoa dute *mozkorkeriaren* norabidean.

Guk hemen adierazitako fenomenoaz hitz-materiale larria bildu dugu. Gure ustez, hiztegiaren alde semantiko hau oso interesgarria da. Hemengo hitz aunitz Azkue-ren hiztegi nagusian dator; ala ere, esan behar dugu hiztegi horrek ez duela biltzen gure lexiko guztia, eta, batez ere, arlo hontan. Beste aportazioak badira Azkue-k «Castellano-eusker» hiztegirako egindako apuntetan, gero Plazido Muxika-ren eta Aunamendi-ko liburuxketan nolabait isladatzen direnak. Gure iritziz, materiale hori aprobetxatu egin behar da, batez ere, *exozentrizitate* fenomeno zabalkiago aztertzeko. Baita aipagarria da hontan F. Seguraren aportazioa, Azkue-ren hiztegian batzutan present dagoena. *Argot-* mailako izenlagun eta atributibo aunitz falta da Azkue-ren hiztegi handian; bereziki, anatomi funtsa duen atributo aunitz falta da haren hiztegian. Atributo hoiek literaturan eta aho-hizkeran oraindik bizirik daude Euskal Herrian, neurri batean.

Bestalde, jakitun izan behar gara beste faktore batetaz, alegia, arlo semantikoek aldaketa asko experimentatzen dutela bere lerraduran eta definizioetan. Euskarak lerradura (corrimiento) horren adibide bitxiak dauzka norabide guztitara, bai hizkuntza barnean euskalki batetik bestera, eta bai euskaratik kanpo gaztelaniara, adibidez. Honela, gaurko «goardasola» AN, B, G ez da lehenengo «parasol»aren ordaina, baizik eta oraingo «paraguas»-ena. *Alproja* hitzean gaur pertsonari dagokion esanahia dago, bainan gaztelaniaz objetuarena (alforja). Berdin *pardel G* (saco eta *idiota*), *mandil* AN (mandil eta *holgazán*), maketo B (macuto eta no vasco) kasutan.

Euskararen barnean lerradurak euskalkietan ere eman daitezke. Belarrondokoa gipuzkeraz «bofetada» da eta goi-nafarreraz eta bizkaieraz «almohada». Zuhaitz/zugaitz kasuan lerradura dago; gipuzkeran lehen «árbol bravío» bakarrik adierazten zuen; orain edozein arbola (fruitaduna ere) adierazteko erabiltzen dute batzuek. Nire jaioterrian zugaitza «basoko arbola» da, Probableki, fenomeno berdina arotz B, G hitzean, *faber* esanaiatik *carpintero* esanahira. *Zurgin* AN, B, L, R hitza da propioena hor (*zur egile*), baina gero *harotz* erabili da (hots, *faber* bezala), *burdinarotz* AN, BN, R, S («faber del hierro») berbak adierazten duen bezala.

Alderantziz, beste batzutan prozedura semantikoak norabide mugatu edo antizabalkorra har dezake, leio c. (ventana) kasuan bezala; bizkaieraz saetera adierazten du hitz horrek, bentaneak bestea adierazten duen bitartean. *Motz* hitzaz bestainbeste gertatzen da, adibidez, euskalki gehienetan «corto, romo» esan nahi duelarik, bizkaieraz «feo» ere adierazten du.

Azkenik, semantikak funtzio berria ere eskura dezake hizkuntz maila zertu batzuetatik; erretolika G (sarta de palabras) kasuan ez daiteke eman *retórica* hitz *kultuaren* ordain bezala, beste alboko esangura bat hartu baitu, eta berdin zaramatika BN, Sal. (embrollo) kasuan *gramatica-ren* ordain. Eta baita gogoratu apofoniak sor dezaken mugapen semantikoa, *sendOtu/sendAtu*, *galdEtu/galdAtu*, *osOtu/osAtu* kasutan bezala.

Hurrengo lerrotan hemen komentaturiko exozentritate faktorearen intzidentzia hitz-arlo-desberdinetan ikus dezagun.

1. EXOZENTRIZITATEA «KOLORETATIK»

Kurioski, *kolore* batzuek balentzia semantiko berezia dute gure hizkuntzan; baina, hau gerta daiteke beste hizkeretan ere, hala nola, gaztelaniaz «pasó las *moradas*», ala «está al *rojo vivo*» esatean.

Euskaraz hiru kolore nabarmentzen dira *exozentritate* arloan. Dira: *zuria*, *gorria*, *urdina*. Zuri koloreak *faltsu* konnotapenak hartzen ditu. Gorriak *gogordura*, *bortiztasuna*, *intentsitate* nabardurak. Honela «kale *gorrian*» (en plena calle), «premi *gorrian*» (en gran miseria). *Gorriak*, baita, *biluztasuna* adieraz dezake, *Aizkorri* (peña pelada), *lurgo-ri* (tierra quemada o pelada) kasuan bezala.

Urdin koloreak ez du norabide semantiko hain desarroilaturik, baina badu konstante bat *zikin* edo *satsuaren* (abyecto) kontzeptu bidean BN, R. euskalkietan (neska urdinalandre *urdina* = chica sucia, mujer sucia). Bestalde *urdin* koloreak zonalde batzutan *cano-grisáceo* adierazten du. Honela «ile *urdina* = pelo cano».

Beltzak, ere, noski, badu balentzia exozentrikoa, baina ez da euskararen pribatiboa. Hizkuntza aunitzetan *neketsua*, *zaila*, *izugarria* adierazten du, «pasó las *negras*» (gurean «beltzak ikusi zituen», «beltzak entzun zituen»). Semantika hortaz hornituta daude hitzok ere: iparbeltz (viento muy frío), aizebeltz (vendaval).

Hona, bada, koloretatik sorturiko izendegi exozentrikoa. Lehenik euskal hitza emanen dugu, bigarrenik esanahi *exozentrikoa* eta hirugarrenik esanahi *endozentrikoa* eta *literal* (dagoenean).

2. «ANATOMI» KONTZEPTUETATIK SEMANTIKA EXOZENTRIKOA

Anatomi kontzeptuetatik (*esku, aho, mihi, buru, bihotz, etab.*) sortutako hitz exozentrikoen arloa oso zabala da gurean. Praktikan, giza soinaren atal garrantzitsu gehienak balentzia psiko-baloratiboaz hornitzen dira, harrigarriro. Gaztelaniaz ere konstata daiteke horrelako zerbait *manirroto* (generoso), *bocazas* (soplón, muy hablador) hitzetan bezala. Gurean, ordea, askosaz harrotuagoa dago lerradura semantiko hau.

Euskaldunaren izaera miatzaile, transobjetibizatzaile eta ironizaleagatik gure anatomia nagusiena balorapen *semantiko* berriaz jазten da expresabideetan. Honela *bihotz* hitzak hogeitabaits baino gehiagoko mamidura exozentrikoa lor dezake. Nire hiztegian 25 bat desarroilo dauzka, eta *esku* hitzak 15 bat. *Neurri* edo *tamaina luze, zabal, labur* bezalako lerradura semantikoen jabe da *eskuzabal* (generoso), *eskulabur* (mezquino), *bihotzabal* (generoso), etab.

Hau dena, noski, euskaldunaren jeinu erdisinbolista, erdi ironizatzaleari zor zaio; berarentzat inguruko errealitatea sugestioz eta zehar-durazko transposizioz beterik dago.

Goian adierazi dugun bezala, koadroaren ertzean esanahi endozentrikoa eta literala datar, Hitz batzutan, ez da ematen usuario endozentrikorik, *literala* baino (beraz, *eskuzimur* batek, adibidez, oso kasu gutitan edukiko du usuario *endozentrikoa*). Beste kasutan, ordea, aldi berean bi esanahiak oso ohizkoak izan daitezke (txerri *muturrandia* hoxicudo) eta atso *muturrandia* (*descarada*). Aipatzekoa da *eskugizen* (de mano *gruesa* lit.) bezalako adjetiboaren sugestibilitatea, *emankortasuna* adierazteko.

3. «ZOOLOGI» KONTZEPTUETATIK ESANAHI EXOZENTRIKOA

Zoologia arloa, bere hedadura zabalenean (*hegazti, narrastari, xomorro, ugaztun, etab.*), gure hiztegiko semantik intzidentzia nagusienetakoa da.

Euskarak angelu arrunt eta konkretuenak aprobetxatzen ditu baliotapen psikologiko eta sugerigarri berriak sortzeko. Lehen *gizena* faktoreari *emankortasunaren* balentzia erasten bazion (*eskugizen* = generoso), orain zenbait animalez *gaizto, bihurri* ala *zikin* konnotapenez baliatuko da moral-kontzeptuak isladatzeko. Beraz, animale batzuen *negatibitate* horrek erreferentzi zehatzak edukiko ditu moralaren ala tipologiaren mailan.

Honela, *oilanda, mozoilola, txoria*, eta, batez ere, *ugaztun* zenbait, *astoa, azeria, otsoa, zerria, txakurra* bezala (eta baita *sugea, apoa* eta *zorria*) «zikin», «gaizto», «basa», «faltsu», hitz batean, *negatiboaren* balentziaz hornituta agertzen da.

Beraz, *basaren* (silvestre) kontzeptua (bestaldetik *basatiaren* (fiero) ideiaz hain lotua) euskarak herrian halako konnotapen *negatibo* batzuk dituzten animaletara joko du; adibidez, *asto*, *suge*, *azeri*, *zerri-ra*. Honela, «arveja silvestre» *sugeillar* AN (arveja de la *serpiente*), esaten da, «ciruelo silvestre» txerrigerezi AN, G, L (ciruelo del *cerdo*), eta «fresno silvestre» otsalizar G (fresno del *lobo*).

Kasu hauetan euskarak inguruko kulturak eskaintzen dizkion *konnotapen psikologiko* guztiak bereganatzen ditu, eta expresabide berri eta sugerigarriak mamitzen. Gaztelaniak ere badu, nolabait, mami-dura antzekoa *zorrozorra* hitza norabide semantiko berdintsuan erabiltzean (gizon *maltzurra* eta andre *emagaldua* (prostituta) adieraztean). Kasu berdina gizon *oso beldurtiari* «gallina mojada» diotsanean, eta gizon *maltzurari* ala *gaiztoari* «perro»,

Ala ere, euskaraz *intentsitate* larriagoa dago exozentritate arlo hontan. Goiko atalean garbiro probatuta gelditu da gure hizkuntzak duen mami-dura *semantiko* berezia. Hemengo hitz soil eta konposatuak, bestalde, abantaila bat dute sarritan, alegia, *oso ulergarriak* direla, animale-izan hoiek oso ohizkoak eta arruntak baitira.

4. KONTZEPTU «OBJETIBO-MATERIALETATIK» HITZ EXOZENTRIKOAK

Oinarri *objetiboa* (edo *materialea*) duten hitz exozentrikoak nahiko sarritakoak dira beste hizkuntzetan ere. Gaztelaniaz hontan ez dago dudarik, hor daude *cafre*, *poste*, *chaqueta*, *pendejo* hitzak, denak esanahi *exozentrikoz* hornituak «pareces un poste», *holgazán*, «eres una chaqueta de guardia», «eres un cafre», etab.).

Agian, exozentriko «objetibalak» dira hitzak sugeritua hobekien isladatzen dutenak. Beraz, gizon *tonto* bati *lukainka* (longaniza), *gazanbera* (requesón) ala *artaburu* (panoja de maíz) deitzeak badu halako gardentasun kontzeptual bat, beraz, *gazanberak* ala *artaburuak* ezin baidezake ezertxo uler, guztiz pasiboa delako. Berdin, gaztelaniaz gizon bati *zoquete* (egur-trontxo) deitzean; egur pusketak ez du deus ere konprenitzen, ez du ezeren kontzientziarik... Gizon on-huts bati «pareces un *pan bendito*» egozte, beraz, logikoa da hemen aztertzen dugun norabide semantikoa, *psiko-baloratiboaren* faktorea ongi kontutan edukirik.

5. «TRESNA» KONTZEPTUA DUTEN EXOZENTRIKOAK

«Tresna» ideia «objetiboari» oso lotua dago, eta, batzutan, nahastu ere egiten da. Tresneriaren arloan *gailu* den hitz aunitz azaltzen da: *maillu*, *atxur*, *lapiko*, *ontzi*, etab.

Hitz hauek ere aise adierazten dute esanahi exozentrikoa, beraz, «pelma» den edozein pertsonak «mailuaren» sinbologia baitu, jo eta ke gauza bera kolpatzen eta errepikatzen dabilelako. Antzeko zerbait esan

daiteke -ONTZI (UNTZI) (cubo, olla) hitzaz konposatuetan: *berriontzi* (cubo de noticias o charlatán), *hitzontzi* (cubo de palabras o charlatán), *putzontzi* (cubo de soplidos u orgulloso). Eta berdin *ttarttala* (cítola de molino o parlanchín), *auspo* (fuelle o hablador) kasutan. Semantika exozentrikoa bizia duten beste tresna batzuek *kaiku* (cuenco/majadero), *eltze* (olla/necio), *burruntzi* (asador/elpelma), *kirten* (mango/majadero) dira.

6. «IZEN PROPIO» KONTZEPTUETATIK EXOZENTRIKOAK

Gure hizkuntzan baditugu izen propioen angelutik erreferentzi baloratiboak artzen dituzte *atributiboak*. Hoiere artean nabarmenena, emakumeen sailean, MARI hitza da. Izen honek sugerigarritasun handiko eratorriak dauzka, *marikriseilu*, *marisorgin*, *marimaistra* bezala. Gaztelaniaz berdin *marisabidilla*, *marimacho* kasutan.

Bestalde, euskaraz baliapen antzekoaz erabiltzen dira PELLO, PA-TXI, ANTTON, MATXIN izen propioak. *Antton-pella* BN (Antonio-Pedro) izenak tipo zozoa adierazten du. Jatorriz, baliteke atributibo hori sortu zen lekuan *Antton-Pella* izeneko tiporen bat oso memeloa edo zozoa izatea, eta gero transzenditzea, *matxinadaz* (Matxin-etik), *jaimitadaz* (gaztelaniaz Jaime-tik) gertatu den bezala.

7. «BOTANIKA» KONTZEPTUZKO HITZ EXOZENTRIKOAK

«Botanika» arloak ere badu bere inferentzia hemengo semantikaren mamiduran. Beti bezala, *metaforak* oso sugerigarri diren hitzak bere berezko bidetik desbideratzen ditu, balioztapen psikologikoak kontutan hartuta. *Inozo* (ingenuo) den norbaiti «babalore» (flor de haba), ala zozo (necio) den bati «artaburu» (panoja de maíz) deitzeak halako *konnotapen baloratibo* zentzuzkoa du. Izan ere, ez «babalorreak», ez «artaburuak» (alata, *arbiburuak*, *azaburuak*) ez du ezer ulertzen, ez du ezeren ezaguerarik eta kontzientziarik, *zozoa* den tipo bat bezala. Lerradura semantiko hauetan halako zeharkazko eta sinbolozko desarroilo sugerigarri bat dago. Normalean, botanika erroa duten hitzek exozentrismoaren haria ongi luzatzen dute.

Arlo hontan nabarmenena SASI (zarza) hitza da, *pseudo* edo *faltsu* esanahiz paraurizki bezala ere erabiltzen dena. Atributo hauek oso bi-ziak daude oraindik ahozko euskarari: *sasikume* (*hijo natural*, hijo de la zarza, lit.), *sasimaisu* (*maestro torpe*, maestro de la zarza lit.), *sasiarotz* (*carpintero torpe*, carpintero de la zarza, literala), etab.

8. KONTZEPTU «TIPOLOGIKOETATIK» HITZ EXOZENTRIKOAK

Atal hontako hitzetan balorapen exozentrikoa tipologia zehatz batez nahasten da, eta lerradura semantikoa balio-erreferentzietatik egiten da. Exozentriko hauen esanahia ere nahiko garbia edo gardena da.

Honela, *etorrerrex* L (*condescendiente* / que viene fácilmente, lit.), *parresamur* B (*sonrisa* / de risa tierna, lit.), *egoskor* (*temoso* / difícil de co-
cer, lit.).

Baita tipologiazko semantika euskaldunaren izaera transobjetibi-
zatzaille, ironizatzaille eta zehardurazkoaz hornituta dago. Euskaraz
«konnotatiboa» konkretuaren azterketa eta begiztapen *sinboliko* bate-
tik dator, nolabait.

9. IZAERA «ASKOTARIKO» EXOZENTRIKOAK

Azkenik, sail hontan lerradura semantikoak *toki*, *aro*, *tamaina*, *zen-
baki*, *zirkunstantzia*. Hau da, erreferentzia *askotatik* sortutakoak sar-
tzen ditugu. Hori isladatzen dute, beraz, kasuok: *zazpisuete* B, BN (*go-
rrón* / de siete cocinas, lit.), *zokokari* BN (*luraño* / amigo de rincones,
lit.), *nun-zebarri* B (*entrometido* / buscador de noticias, lit.), *sekulako* G
(*tremendo* / de un siglo, lit.), etab.

bái e/táre / békha/túyak // púnizi/one / ségur/kî.